

Munduko trial bike txapelduna Garain bizi da

Julen Saenz de Ormijana arabarra Garain bizi da iazko urritik. Taldeka hiru bider irabazi du munduko txapeketa, eta birritan txapeldunorde izan da. / 20



ODOLA EMATEA, BIZIA EMATEA

Orain egun batzuk, Osakidetzak odol erreserbak baxu daudela ohartarazi zuen, eta herritarren erantzuna "berehalakoa" izan dela azaldu du Laura Biritxinaga Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko Kudeaketa Klinikoko unitateburuak. Durangarrak odola ematearen garrantzia gogoratu du. / 2 - 3



Laura Biritxinaga Usansoloko Ospitalean.



Aditu talde batek aurtien ere ikerketa lanak egingo ditu Mañariko Silibranka aztarnategian / 08



ATE IREKIAK

Urtarrilak 31

Zatoz gu ezagutzera!
10:00 - 13:00

 Bruno Mauricio Zabala Kalea, 6
48200 Durango, Bizkaia

 neversikastetxea.com

 946 81 09 46

 @neversikastetxea

Jone Guenetxea DURANGALDEA

Odola ematea elkartasun ekintza anonimoa da. 10 minutuan egiten den ekarpen horrek biziak salbatu edo luzatzen laguntzen du. Baina donazio kopurua beharrianen araberako mailetan mantzentzea ezinbestekoa da. Ildo horretatik, Osakidetzak ohartarazi du odol erreserbak baxu daudela. Laura Biritxinaga durangarra Osakidetzako Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko Kudeaketa Klinikoko unitateburua da. Eskualdeko herritarrak parte hartzera animatu ditu.

Osakidetzak ohartarazi du odol erreserbak baxu daudela. Zein da gaur egungo egoera?

Egoera hau urtero errepikatzen da. Gabonak eta abuztua momentu delikatuak izaten dira erreserbetarako. Alde batetik, ohiko emailak oporretan egoten dira; eta, bestetik, aurtengo neguan, beste batzuetan legez, gripeak oso goiz jo du goia. Azaroa oso hilabete ezohikoa izan da donazioetarako, eta kontuan izan behar da arnas-birus bat izan ondoren 15 egun itxaron behar direla berriro odola emateko. Hori guztia batu da, eta, gainera, aurtun jaieguna aste erdian izan dira eta jaiegunetan ez dugu odol biltzarik egiten. Hori kontuan hartuta, urtarriko lehenengo astera nahiko baxu heldu gara.

Sarri pentsatzen dugu odola larrialdietan baino ez dela behar izaten, baina, zein egoeratan da ezinbestekoa odol emailen ekarpena? Ospitaleko eguneroko jardunean beharrezkoa izaten da.

Bai, behar-beharrezkoa da. Ospitaletan egunero egiten dira transfusioak. Paziente kroniko asko dago, onkologikoak adibidez; hauek oso tratamendu onak dituzte eta bizi itxaropen luzeagoa, baina askotan tratamenduan transfusio bat behar izaten dute, odol maila mantentzeko. Gero, badaude larrialdiak, ebakuntzak (programatuak izan arren askotan odola behar da), transplanteak eta baita erditzeak ere. Batzuetan, erditzeetan edo jaioberrien kasuetan, ume goiztiarren kasuetan, adibidez, odola behar izaten da. Denerik dago.

Erreserba mailak egokiak direnean ez duzue deirik egiten. Berez estatistikoki badakizue zenbat behar den eta muga horretara heltzean egiten duzue deia.

"Odola emanda, ahalegin txiki bategaz biziak salbatu daitezke"

LAURA BIRITXINAGA OSAKIDETZA

Osakidetzako Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko Kudeaketa Klinikoko unitateburua azaldu du erreserbak baxu daudela, baina herritarrek berehala erantzun diotela deiari



Laura Biritxinaga.

"IAZ 1.669 EMAIL EGIN ZIREN DURANGALDEAN, HORIETATIK 105 BERRIAK IZAN ZIREN"

Euskal Herriko sare osoa kudeatzen dugu, pribatuak ere guk hornitzen ditugu odolagaz eta plaketekin. Dena informatikoki identifikatuta daukagu eta badakigu normalean zenbat behar izaten den. Aurreikusten

"BELAUNALDI ALDAKETA ERRONKA BAT DA, GAZTEEK OHITURA HORI HARTZEA"

dugunean maila batzuetara jaitsi dela, erreserba horietara heldu baino lehenago dei egiten dugu herritarren kolaborazioa eskatzeko.

Deialdi bat egiten duzue, igartzen duzue jendearen erantzuna?

Zuzenean igartzen dugu. Jendeak itzelean erantzuten du, aton erreakzionatzen du. Aurtun, adibidez, erantzuna berehalakoa izan da. Goiz batean arazoa jakinarazi, eta arratsaldean bertan igarri da erreakzioa. Gero sistemak hori xurgatu egiten du. Biltzen duguna prozesatu egin behar da lehenengo, eta aste honetan zehar joango gara ospitalen erreserbak berriro betetzen. Baina erantzuna oso ona izaten da, bai. Hala ere, gogoratu beharrian urte osoan dagoela.

Belaunaldi aldaketa bat gertatzen ari da odol emailen artean. Zelan egin daiteke transmisio hori gazteagoen artean odola ematearen garrantziaz kontzientzia pizteko? Baditugu proiektuak gazteen artean gai honen inguruko sentsibilizazioa bultzatzeko. Eskoletatik hasten da askotan. Ikastetxe batez, esate baterako, adin txikikoekin proiektu solidario bat lantzen dugu: herritar legez kontzientzia hori hartu behar dugu, denon artean horri eusteko. Azken batean, denon onerako izaten da, norberaren onerako zein inguruko baten onerako. Osasungintzaren eta hezkuntzaren artean lotura hori txertatzea da gakoa. Bestalde, Lanbide Heziketako zentroekin ere baditugu ikastaroak eta jarduerak.

Baduzue 2025eko odol emateen daturik?

2025ean, 46.418 emailak 79.107 odol emate egin zituzten Euskadin, gehienek erregulartasunez (urtean birritan edo gehiagotan) eman zuten odola. Hala ere, nabarmentzekoa da 6.599 email berri egon zirela. Izan ere, 68.415 globulu gorri kontzentratu eta 11.504 plaketadosi lortu ziren, eta 22.224 plasma-litro immunoglobulinak, faktore antihemofiliko albuminak eta abar prestatzeko erabili ziren. Guztira, 82.000 osagairen transfusioa egin zen, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentrotik osasun zentroetara banatuta, pazienteen bizi salbatzen edo haien osasuna hobetzen laguntzeko.

Eta Durangaldean?

2025ean, 1.669 emaile izan genituen Durangaldean (713 emakume eta 956 gizon). Horien artean, azpimarratzekoa da 105 pertsona odol emaile berriak izan zirela (66 emakume eta 39 gizon). Guztira, 2.832 donazio egin zituzten (1.065 emakumeek eta 1.767 gizonek).

Gai honetan desinformazio handia dagoela esango zenuke? Zein da errepikatzen den informazio oker hori?

Informazioaren aldetik, odolagaz zer egiten den da gehien errepikatzen den galdera. Batzuek pentsatzen dute saldu egiten dela. Odol emate arrunt batean, odola zentrora ekartzen da eta hor zatitu egiten da, hiru osagaitan: globulu gorriak, plaketak eta plasma. Bakoitzak indikazio bereziak ditu, eta, beraz, pertsona batek hiru pertsonari lagundu diezaiekeela esaten dugu. Plasmagaz zer gertatzen da? Plasmaren kasuan, zuzenean egin daiteke transfusioa, baina beste zati handi batetik botika plasmatikoa ateratzen dira. Guk enpresa bati ordaintzen diogu



Herritar bat odola ematen. OSAKIDETZA

zerbitzu hori egiteagaitik, baina botika horiek doan bueltatzen dira ospitale publikoetako farmazietara. Botika horiek sistema publikoan erabiltzen dira. Hori, adibidez, askotan galdetzen digute.

Jendea beldur denean, edo zalantzak dituenen, orratzari dioten beldurragaitik, adibidez, zer esango zenieke lehenengoz probatzera joan daitezen?

Ahalegina egiteko. Baliteke batzuek beldurra sentitzea, orratzak ezin dituzte ikusi ere egin, baina behin hori gaindituta bueltatu egiten dira. Batzuetan aurreiritziak ere izaten dira. Prozesua bera, odola ematea, 10 minutu dira, eta elkarriketa ere kontuan hartuta 20 minutu izan daitezke guztira. Ahalegin txikia da eta biziak salbatu daitezke. Gaur egun, kirolariek ere zalantza asko dago, errendimenduan kalte egingo ote duen. Baina odol kopurua erraz berreskuratzen da. Zure bizimodua kirolean oinarritzen ez bada, txirrindulari talde profesional batean ez bazaude, adibidez, ia ez dago eraginik, esan duduan moduan

odola segituan berreskuratzen delako.

Durangon leku finko bat daukagu odola emateko. Eguenero egoten gara, 16:30etik 20:45era, ambulatorio zaharrean. Durangaldeko beste herrietara autobusagaz joaten gara.

Zein da odol emate sistemak Euskal Herrian duen erronka nagusia epe ertainera edo luzera begirata?

Batez ere, belaunaldi aldaketa da. Oso belaunaldi fidela eta erregularra izan dugu. Jende horrek oso serio hartzen zuen odol ematea, eta ahal zuen neurrian etortzen zen. Baina jende hori adinean gora doa, osasun arazoak izan ditzake, edo ebakuntzaren bat, eta ezin du eman. Beraz, pertsona horiek ordezkatzea da erronka. Gazteek edo atzetik datozenek ohitura hori hartzea da gakoa, aurrekoek izan duten moduan, eta denon artean sistemari eustea.



Non eta noiz eman dezaket odola Durangaldean?

OSTALARITZA GIDA

ZORNOTZA

IURRETA

DURANGO

DURANGO

XIBERU



Zeilia Gallartzagaitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

Xiberu Taberna

@xiberutaberna

GAUARGI



Dantzari, 4 behe
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

@gauargitaberna

IBAIZABAL



Ibaizabal taldea, 2B
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak. Ostiraletan pintxopotea!

OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52
Tel.: 946 200 864

Eguerdian asteazkenetik igandera (13:00-15:30).
-Eguneko menua 19,90€ / Dastatzeko menua 45 € / Karta / Mokadu karta.
Gauean ostegunetik larunbatera (20:00-22:30).
**TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

Hotel Olajauregi

@hotel_olajauregi_jatetxea

"Faxismo berri bat indarra hartzen dabil"

PEIO MARTIN ETA MAIALEN CARLOS DURANGALDEKO GKS

Gazte Koordinadora Sozialistak manifestazio bi egingo ditu urriaren 31n, Euskal Herrian faxismoaren kontrako jarrera indartzeko. Bilbon eta Iruñean mobilizatuko dira

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Durungaldeko Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) Bilboko manifestaziora joatera deitu du "faxismoaren aurkako mugimendua antolatzeke". Peio Martin zornotzarra eta Maialen Carlos elorriarra eskualdetik Bilbora joango diren kideetarik bi dira. Mobilizaziora batzeko arrazoiak azaldu dituzte.

Zein da manifestazioaren oinarri nagusia?

Peio Martin: Auzi biren kontra mobilizatuko gara. Batetik, faxismoaren aurka, eta, bestetik, mendebaldeko estatuen autoritarismoaren kontra. Joera bi horiei aurre egiteko erresistentzia horma bat eraikitzea da helburua. Euskal Herrian indar mobilizatzaile handia dagoela erakutsiko dugu Bilboko eta Iruñeko kaleetan. Era berean, ikastetxeetan, herrietan eta auzoetako gazteen artean ere zabaldu gura dugu mobilizaziora batzeko kontzientzia.



Peio Martin eta Maialen Carlos Durungaldeko GKSko kideak dira.

Faxismoa goraka doala diozue. Zein da horri buruz egiten duzuen interpretazioa?

Maialen Carlos: Iruditzen zaigu faxismoaren interpretazio mugatua egiten dugula askotan, eta interpretazio hori XX. mendeko

faxismoaren iruditegira mugatzen dugula. Uste dugu gaur egungo krisi kapitalistaren testuinguruan faxismo berri bat dabilela indarra hartzen. Nahiko agerikoa da hori. Eta, horrenbestez, iruditzen zaigu beharrezkoa dela faxismo

berri hori krisi kapitalistatik eta mendebaldeko enpresari eta agintarien interesen eskutik datorrela ulertzea.

P.M.: Oligarkia eta estatu autoritarioak joera erreakzionarioa hedatzen dabilta. Ideologikoki, propagandistikoki, instituzioetan, sare sozialetan eta kalean egiten dute hori. Gure ustez, hor katu behar da mugimendu faxista berria.

Non ikusten dituzue mugimendu berri horren seinaleak?

M.C.: Mendebaldeko estatu guztiak militarizatzen eta euren poliziak indartzen dabilta. Horren adibide garbia Frantzia eta Alemanian borondatezko zerbitzu militarra ezarri izana da. Ideia erreakzionarioen gorakadari dagokionez, kezkarriak dira, besteak beste, ideia matxisten normalizazioa eta migratzaileen aurkako mezuak hartzen dabilta indarra. Azkenik, Núcleo Nacional, Falange Española eta halako antolakundeak euren jarduna handitzen dabilta.

Eta Durangaldean?

P.M.: Durangaldean ere agerikoak dira joera horiek. Orain egun batzuk Zornotzan Desokupa enpresa faxista agertu izana da adibide bat. Garrantzitsua da aipatzea halako enpresek segurtasunaren izenean faxismoa zurritzen dutela eta biolentzia erabiltzen dutela langile zaurgarrien aurka. Horrez gainera, herri batzuetan pintaketa faxistak agertu dira. Adierazpen horiek

geroago eta indar handiagoa dute gure herrietan.

Zelan ikusten duzue Euskal Herriko mugimendu antifaxista?

M.C.: Azken hileetan argi geratu da Euskal Herrian badagoela gazte sektore zabal bat faxismoari aurre egiteko borondatea duena. Borroka antifaxistak jasan duen kriminalizazioaren gainetik, argi geratu da, bai Gasteizen Falangeari emandako erantzunagaz, bai Iruñean Vito Quilesi emandakoagaz, faxismoak ez duela lekuri Euskal Herrian, ezta beste inon ere.

Urtarrilaren 31n Bilbon mobilizatze- ra deitu dituzue Durungaldeko gazteak.

P.M.: Kanpainan zehar komiteak antolatzen ibili gara: formakuntzarako tarteak zabaltzen, propaganda egiten eta aurkezpenak antolatzen. Datozen asteetan bide beretik jarraituko dugu, faxismoaren eta estatuaren autoritarismoaren aurkako aldarria gure herrietako kaleetan zabaltzen, ahalik eta jenderik gehien batzeko mobilizaziora. Horretarako, Durangaldean autobusak antolatuko ditugu Bilbora joateko. Mobilizazioa 18:00etan irtengo da, Bilboko Jesusen Bihotzetik.


"EUSKAL HERRIAN FAXISMOARI AURRE EGITEKO BORONDATEA DUEN GAZTE SEKTORE ZABALA DAGO"

Bidaia kulturala Poloniara eskualdeko 200 adinekorentzat

Izen emateak otsailaren 4ra arte egin daitezke Elkartegian edo Durangoko Astarloa adinekoen zentroan

Ekaitz Herrera DURANGO

Mankomunitateak eta Durango Udalak beste kultur bidaia bat prestatu dute eskualdeko adinekoentzat. Aurten, 60 urtetik gorakoek Poloniako bazterrek eza-gutzeko parada izango dute. Zazpi eguneko bidaia izango da eta Varsovia, Lodz, Wrocław eta Krakovia hiriak eta Wieliczka gatz-meategiak zein Auschwitzeko kontzentrazio-esparrua bisitatuko dituzte. Musika judu tradizionala afari-kontzertu batez amaituko dute ibilbidea.



Varsoviako alde zaharra. ANDRZEJ B.

Irteerak maiatzeko programatu dituzte, lau txandatan: maiatzaren 10ean, 17an, 24an eta 31n. Bidaia 1.545 euroko kostua izango du pertsonako, logela bikoitzean (banakako gelaren osagarria 270 eurokoa izango da). Prezioan zerbitzu hauek sartzen dira: hegaldia, hotela mantenu osoan, bisitak, sarrerak, osasun aseguruia, gidaria eta autobus zerbitzua. Interesa dutenek otsailaren 4ra bitartean eman beharko dute izena Mankomunitatean (Durangoko Elkartegia) edo Astarloa egoitzan (Durangoko adinekoen zentroa). Eskaera kopuruak eskainitako plaza kopuruak gainditzen badu, zozketa egingo dute. 200 lagunentzako lekua dago. Eskualdeko herri guztietako herritarrek eman dezakete izena, mallabitarrek eta zornotzarrek salbu.



DURANGOKO PENTSIODUNAK

Pentsioak duintzea helburu

Pentsiodunen mugimenduak zortzi urte egin zituen astelehenean. Mugimenduak adierazi du "zeozor aurreratu" dutela urte hauetan, baina aurrera begirako bidea "luzea" dela oraindino. Durangon, manifestazioa egin zuten astelehenean. Gutxieneko pentsioak gutxieneko soldatagaz parekatzea eta genero arrakala amaitzea ipini dute aurtengo helburu legez.

Alde Zaharrean patineteak debekatzea eskatu du DAZek

Arrisku eta istripu egoerak sortzen direla eta, ordenantzako atal bat moldatzea eskatu diote udalari

Ekaitz Herrera DURANGO

Alde Zaharreko oinezkoen eremuan patinete elektrikoek erabilera debekatzea eskatu du DAZek. Elkartek dioenez, gidariak "gehiegizko abiaduran" dabiltza Alde Zaharreko kaleetan, "egoiliarren etxebizitza atarietatik gertu" askotan, eta "ez dute nondik doazen begiratzeko". Gainera, gidariak "sigi-saga" eta "ausarkeriaz" zirkulatzen dutela esan dute, eta horren eraginez istripuak sortzen direla. Hori horrela, DAZek mezu bat zuzendu dio udalari. Bertan, esku artean

duen ordenantza moldatzea eta araudi horretako atal bat aldatzea eskatu dio; hain zuzen ere, ordenantzako 8-b atala aldatzea. Izan ere, elkartek dioenez, puntu horrek patinetetik jaistera eta oinez jarraitzea behartzen ditu gidariak, oinezkoen presentziak zirkulatzea ahalbidetzen ez duen kasuetan. Era berean, oinezkoak sigi-sagaka aurreratzea debekatzen du araudiak, eta hamar kilometro orduko abiaduratik behera zirkulatzea derrigortu. Baina, "egunerokotasuna eta errealitatea" bestelakoak direla



DAZ Durangoko Alde Zaharra elkarteko kide batzuk.

iritzita, DAZek esan du "gatxa" dela neurri horiek kontrolatzea, eta oinezkoentzat "arrisku egoerak" sortzen direla. Horregaitik guztiagaitik, patinete elektrikoek erabilera debekatzea eskatu du

Alde Zaharreko oinezkoen gunean. Halaber, eskaria aintzat hartzen ez bada, elkartek jarraipena egingo dio patineteen ordenantzari, bertako atal guztiak betetzen direla ziurtatzeko.

Jolas Libreko Gunea Landako Gunera bueltatu da berriro

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak Jolas Libreko Gunea ipini du martxan berriro. Zerbitzua eraikineko hirugarren moduluan atondu dute, Musika Eskola aldera ematen duen zatian. 16:15etik 20:00etara egongo da zabalik, egunero, maiatzaren 17ra bitartean. Dena dela, udalak iragarri du zerbitzua eten egin beharko dela otsaileko eta apirileko aste bitan, Landako Guneako musika jaialdi bi direla eta (40 Minutu Rock eta Bonustrack). Umeentzako gunea 100 egun baino gehiagotan egongo da zabalik, eta 290 lagunentzako lekua du orain. Bestalde, udalak gogorazti du San Inazioako parkea estali egingo dutela.

Birjinosteko etxebizitzak udan entregatu gura dituzte

Etxebizitza bloke berriak Durangoko lehenengo udal etxebizitza tasatuak hartuko ditu. 22 izango dira guztira



Udal ordezkariak eta obraren sustatzaileak.

Ekaitz Herrera DURANGO

Larrasoloeta, Komentukale eta Kurutzia kaleen arteko orubea itxura berria hartzen dabil apurka-apurka. Birjinoste inguruak 112 etxebizitza berri izango ditu laster: libreak izango dira horietariko 90, eta udalak tasaturikoak 22. Joan zen astean, udal ordezkariak azken horietariko hiru etxebizitza bisitatu zituzten, Grupo Eibar higiezin enpresako ordezkariak lagun. Mireia Elkoroiribe alkateak iragarri zuenez, udan entregatu gura dituzte etxebizitzetako giltzak.

Era berean, Birjinoste inguruan kale berri bat sortuko da: Zesteruena kalea, garai bateko base-riaren omenez; inguru horretan, udalaren eskumeneko orube bat libre geratuko da, eta horrek 39 etxebizitza sozial egitea ahalbidetuko dio etorkizunean.

LABUR-LABUR

Bizikletak dohaintzan Durangotik Senegalera

Durangoko Udalak 20 bizikleta eta motordun ibilgailu bat bidali ditu Senegalera, dohaintzan, Baobab eta Stop Bide Indarkeria elkarteekin laguntzagaz. Horrela, herrialde afrikarreko landa-eremuetako bizilagunei lagundu egin gura diete hezkuntza zentroetara errazago heltzen.

Euskara eta sormen tailerrak Bibliotekan

Bizenta Mogel Bibliotekak euskara modu sortzailean eta parte-hartzailean lantzeko saioak eskainiko ditu hilean behin. Jolasak eta dinamikak eskainiko ditu parte-hartzaileek modu natural eta emozionalean konektatu dezaten hizkuntzagaz. Izen emateak 639 400 786 telefonon.

Tabirako kiroldedia botatzen hasi dira

Eraikina botatzeak 237.700 euroko aurrekontua du, eta lanek hile bi inguru iraungo dute. Jarduketak txarto zeuden instalazioei eragingo die, hala nola igerileku estaliari eta aldagelari. Horien orde, "azpiegitura moderno, irisgarri eta funtzionalak" eraiki gura dituzte; tartean, ur-arazketarako instalazio berria. Udalak azaldu du jarduketa hau lehenengo urratsa dela Tabirako kiroldedia berriro ahal izateko.



Unibertsitate Orientaziorako Azokak

EHUazoka 2026



DONOSTIA
Urtarrilak 31

VITORIA-GASTEIZ
Otsailak 7

BILBO
Otsailak 14



"Faxisten presentzia" salatuko dute Zornotzan

Zornotzako Matrailu gaztetxeak mobilizaziora deitu du gaurko, hilak 23; "faxisten presentzia" salatu eta jazarpena jasandako herritar bati elkartasuna adierazteko egin dute deialdia; EH Bilduk, PSEk eta Elkarrekin Amorebietak agiri bateratua kaleratu dute

E. H. / A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Matrailu gaztetxeak mobilizatzera deitu du "faxisten presentzia" salatzeke eta jazarpena jasandako herritar bati elkartasuna adierazteko. Gaztetxe-ko kideek orain egun batzuk salatu zuten, etxegabetzeak egiteaz arduratzen den "enpresa faxista" bat San Antonio auzoan izan zen, hango bizilagun bat etxetik aterazera behartzea etorrira. "Argi utzi behar dugu faxistak ez direla ongi etorriak ez hemen, ez inon. Inoiz baino beharrezkoagoa da erantzun antifaxista antolatzea", esan dute Matrailuko kideek.

Elkarretaratzea gaur egingo dute, urtarrilak 23, 20:30ean, Urgezoz.

Hiru alderdiren agiria

Bestalde, Zornotzako EH Bilduk, PSE-EEk eta Elkarrekin Amorebietak agiri bateratua publikatu dute "Desokupa izenez ezagutzen den taldea" Zornotzan egon dela salatzeke. "Etxegabetze



Matrailukoen mobilizazio bateko artxiboko irudi bat, Durangon, epaiketa batean.

taldeak ez du inolako zilegitasun demokratiko, instituzional eta legalik udalerrian jarduteko. Bere presentziak ez dio inongo prozedura ofizial bati erantzuten, eta zuzenbide estatu batean onartezina den jazarpen eta biolen-

tzian oinarritzen da", esan dute. Hiru alderdiek "berezikiki larritzat" jo dute egoera eta "elkartasuna eta babesa" adierazi dizkiete "jazarpena jasaten dabilen maizterrarri" eta halako egoera jasaten dabilen pertsona guztiei.



Martitzenean egin zuten txotx ekitaldia.

Fernando Gonzalez enbaxadore dela hasi dute txotx denboraldia

Urtero lege, Zornotzako Uxarte sagardotegian eman diote hasiera Bizkaiko sagardo denboraldiari

Aritz Maldonado ZORNOTZA

"Azken urteetako sagardorik dezentena" kupelean dutela ekingo diote txotx denboraldi berriari Bizkaian. Hain zuzen ere, Zornotzan egin dute hasiera ekitaldia, urtero lege. Klima onari eskerrak, "oso kalitate oneko" sagarrak eduki dituztela azaldu du Jose Antonio Zamalloa Bizkaiko Sagardo Ekoizle eta Egileen Elkartearen presidentea. "Oso sagardo freskoa da aurtengoa, kolore aldetik argi ikusiko da edalontzian, eta usaintsua ere izango da", gehitu du. Hain zuzen ere, oraintsu Michelin Izarra

irabazi duen Fernando Gonzalez La Reveliako sukaldari ezagunak Bizkaiko sagardoaren maila go-raipatu du. Itzela da horrelako produktu natural eta kalitatezko bat hain hurbil edukitzea", azaldu du; bera izendatu dute enbaxadore txotx denboraldiari hasiera emateko.

Sagardoari dagokionez, 2025eko uztak Bizkaian 98.500 litro sagardo natural ekoiztea ekarri du. Elkarteari dagokionez, bertako sagardoagaz egindako produktuen aldeko konpromisoari eusten diotela azpimarratu du Zamalloak.

Elorriarrek ibilgailu pribatuagazko "mendekotasun handia" dutela dio mugikortasun ikerketa batek

Udalak herrian egindako 200 inkesta baino gehiagotan oinarritutako diagnosiaren ondorioetarikoa bat da



Elorrio.

A. M. ELORRIO

Elorrioko Udalak mugikortasunaren diagnostika egin du udalerriko mugikortasunaren egoera aztertu eta etorkizunerako oinarriak ezartzeko. Diagnostika azpiegitura, garraio publikoaren erabilera, bizikletaren eta oinezkoen mugikortasuna eta genero-ikuspegia aztertu ditu, eta herritarren parte hartzea izan du oinarri (udalak 200 inkesta baino gehiago jaso ditu). Diagnostikoaren arabera, Elorriok eskualdean konektibitate ona izan arren, herritarrek ibilgailu pribatuagazko "mendekotasun handia" dute oraindik. "Bizkaibus A3923 lineak joan-etorrien ia erdia batzen du eta mugikortasun aktiboko aukerak (oinetz edo bizikletaz) oraindik indartu egin daitezke ibilbide seguroago eta jarraituagoekin", esan du udalak.

Martxan da lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantza berria

Berrizko Udalak ordenantza-proiektua publiko egitea erabaki du, herritarren parte hartzea bultzatzeko

A. M. BERRIZ

Herritarren fokuan ez ezik, etxebizitzaren arazoa udalarenean ere badagoela erakutsi gura izan du Berrizko Udalak. Eta, herriko etxebizitza eskaintza handitzeko helburuagaz, beste pauso bat eman du. Iazko azaroan, lokalak eta trastelekuak etxebizitza bihurtzeko udal ordenantza berriaren proiektua martxan ipintzea onartu zuten. Horrela, "hiri-lurzoruko etxebizitza kopurua handituko litzateke, eta herritarrek etxebizitza horiek errazago lortuko litzateke". Orain, udalak publiko

egin du aurreproiektu hori, herritarrek euren iritzia, kezka eta proposamenak helarazteko. Internet bidez egingo dute, www.berriz.eus atarian; bertan dagoen 'kontsulta publikoak' atalean egin daitezke ekarpenak. Parte hartzeko prozesua otsailaren 21era arte egongo da zabalik, eta udalak berriztarrei dei egin die euren iritzia jakinarazteko bertan, "15 eguneko epean herritarrek eta hala uste duten erakundeek iritzia eman dezaten ekimenagaz konpondu gura diren arazoei buruz", azaldu dute udal iturriek.



**Matrikulak
otsailaren
2tik 13ra**



Eman izena!

Tel. 94 681 00 50
www.durangojesuitak.org

Silibranka, ikerketa berriak Mañariko aztarnategian

Ikerbasque zientzia fundazioko lantalde bat aurten ere prest dago Mañariko aztarnategia ikertzen jarraitzeko. 2017tik hona, sarritan joan dira Silibranka deitzen den gunera. Historiaurreko pertsonei eta bizimoduari buruz gehiago jakitea da helburua



Ikerlariak Silibrankako aztarnategian lanean. IKERBASQUE

J.D. MAÑARIA

2017tik hona, Ikerbasqueko iker-tzaileek Mañariko Silibranka aztarnategia bisitatzen dute aldi-
ro. Gunera ikertuta, historiaurrean
han egon zen komunitateari eta
orduko fauna, flora eta inguru

naturalari buruz gehiago jakitea
da helburua. Lur azpia ikertu
ahal izateko, zerura begira daude
egunotan. Izan ere, eguraldia ez
dute lagun urte hasiera honetan.
Aurtengo ikerketa lana asteen
bertan hasteko asmoa zuten, bai-

na azken unean datorren astera
arte atzeratu behar izan dute.

Eguraldia lagun dutenean, bost-
sei laguneko ikerlari talde batek
Aldegioiena auzoan dagoen San
Lorenzo ermita ondoan utziko
du ibilgailua, handik gertu bai-

tago aztarnategia, sei-zazpi mi-
nutura oinez. Silibranka inguru-
ko harkaitzek babesa edo aterpea
ematen dioten gune bat da. Beraz,
aire zabalean dago, ez da koba-
zulo bat.

Jose Migel Barandiaran antro-
pologo, etnografo eta abade ospe-
tsuak 1930ean han egindako in-
dusketak atera zuen argitara
Silibrankako aztarnategi arkeo-
logikoa. "Goi Paleolitoaren amaie-
rako ehiztari-biltzaleen okupazio
bat aurkitu zen", esan du Maria
Jose Iriarte Chiapussok, Ikerbas-
queko ikertzaile taldeko kideak.
Harrezkero ia mende bat joan da
eta baliabide teknologikoak asko
hobetu dira. "Orain egiten diren
analitika asko ez ziren orduan
egiten, edo ez ziren existitzen",
gaineratu du. Ildo horretatik,
horixe da 2017tik honako ikerke-
ten helburua, arkeologia gunea
gaur eguneko zientziaren begie-
tatik aztertzea. "Kontserbatu den
ebidentzia oro aztertzen dugu
EHUko Geografia, Historiaurrea
eta Arkeologia Saileko laborate-
gietan", zehaztu du Iriartek.

Urteetako ikerketari eskerrak,
Silibrankako okupazio gunea
harkaitzen babesguneetik kanpo-
ra ere zabaltzen dela deskubritu
dute. Hain zuzen ere, aurten kan-
poko gune horretan arituko dira
lanean. "Aztarnategia noraino
hedatzen den jakin gura dugu",
esan du Iriartek.

Silibrankan aurkitutako aztar-
narik "gehienak" industria liti-
koari lotutakoak dira: azagaia

zatiak (ehizarako puntak), marrak
grabatuta dituzten hezur zati
txikiak eta silex zati txikiak aur-
kitu dituzte, asko milimetro
gutxi batzuetakoak. Aztarna
txiki horiek informazio baliotsua
gordetzen dute. "Azken batean,
burdinola batean burdin txirbi-
lak aurkitzea lakoa da", konpa-
ratu du Iriartek. Horrela, "tresnak
hantxe ekoizten zituztela" ondo-
rioztatu dute. Gainera, Silibran-
kan aurkitutako aztarna kanti-
tateak "okupazio jarraitua" izan
zuela iradokitzen du.

Gainera, gaur egungo analisiei
eskerrak, Jose Migel Barandia-
ranek bere garaian proposatuta-
koa baino okupazio-aldi zaharra-
goa identifikatu dute: Magdale-
niense erdialdekoa. Beste modu
batera esanda, egungo datuen
arabera gizakiaren presentzia
orain 14.000 eta 11.000 urte artekoa
izan zen Silibrankan.

Aurrera begira, askotariko az-
terketa metodoei eskerrak garai
hartako errealitatea hobeto eza-
gutzen jarraitu gura dute: zein
izan zen landaredia-paisaiaren
eboluzioa, kontsumorako anima-
lien hautaketan zelako bilakaera
izan zuten eta abar.

"SILIBRANKAKO OKUPAZIO GUNEA NORAINO HEDATZEN DEN JAKIN GURA DUGU"

Atxondoko Udalak bat egin du euskal karabana solidarioagaz

Urtarrilaren 29ra arte bi tokitan utzi daitezke elikagaiak: udaletxeko atarian eta eskolan kokatutako kaxetan

J.D. ATXONDO

Atxondoko Udalak bat egin du
Sahararen Euskal Karabanagaz,
Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen
kanpalekuetan bizi diren saha-
rarrei laguntza helarazteko hel-
burua duen elkartasun ekime-
nagaz. Horren bitartez, elikagaiak
eta oinarritzko produktuak bil-
duko dituzte, kanpalekuetan
duten elikagai faltari aurre
egiteko asmoz.

Bilketa urtarrilaren 29ra arte
egongo da martxan Atxondon,
eta herritarrek leku bitan utzi
ahal izango dituzte dohaintzak:

udaletxeko atari barruan eta
Atxondoko eskolan ipini dituz-
ten kaxetan. Bildutako guztia
Elorriora eramango dute; han,
Elorrioko Udalak eta Lajwad
elkartek kudeatuko dute dena.
Aurten, elikagai eta produktu
hauek batuko dituzte: arroza,
pasta, atun eta sardina kon-
terbak, azukrea, dilistak eta
konpresak.

Urteroko kanpaina

Ekimen hau Sahararen Euskal
Karabanaren barruan kokatzen
da, Saharako Ilargi Erdi Gorria-



Karabana solidarioiko kamioi bat, elikagaiz beterik.

ren eta Emakumeen Nazio Ba-
tasunaren deiari erantzunez,
eta sahararrekiko Elkartasun
Taldeen Koordinazioaren bar-
rruan. Durangaldean zein Eus-
kal Herri osoan urtero antolatzen
den kanpaina da. Karabanen

bildutako elikagaiak kamioietan
aterako dituzte Euskal Herritik.
Gero, itsasoan zehar eramango
dituzte Afrikara. Handik, Tin-
dufeko (Aljeria) errefuxiatuen
kanpalekuetara eramango di-
tuzte, han banatzeko.

Hamar ume sahararrek egingo dute udako egonaldia Izurtzan

J.D. IZURTZA

Aurreko urteetan legez, aurten
ere adin txikiko hainbat saha-
rrarek Izurtzako aterpetxean
emango dute uda Río de Oro
elkarteari eskerrak. Elkartek
zehaztu duenez, aurten hamar
ume etorriko dira. Denek behar
bereziak dituzte. Eurretari
hiru-lau lehenengoz etorriko
dira egonaldia, eta beste batzuk
lehendik ere egondakoak dira.
Umeak ekain amaieran helduko
direla aurreikusten dute eta
abuztua amaitu arte egongo dira
bertan. Urtero legez, boluntarioen
laguntza beharrezkoa izango da.
Elkarteko kideen esanetan, bo-
luntarioentzako izen ematea
apiril inguruan zabalduko dute.



**KURUTZIAGA
IKASTOLA**

BIZITZEKO HEZI



ESKAINTZA

0 urtetik 18
urtera bitarteko
hezkuntza
eskaintza.



HELBURUAK

Ikasle euskaldun,
kritiko eta
eleanitzak.



ELIKADURA

Jantoki
Eko-Arduratsuen
ziurtagiria.
Bertokoa,
ekologikoa eta
sasoikoa.

Matrikulazio epea:
otsailaren 2tik 13ra

Galtzareta Kalea, 13 · 48200 Durango, Bizkaia
946 20 08 22 · kurutziagaikastola.eus



**Ateak
zabaltzeko
jardunaldiak**

Urtarrilak 24 · 11:00etan

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

URTARRILEKO ZOKKETAK



Xiberu taberna
bi gosari bikoitz.
Zornotza.



**Areatza
bainuetxea**, Gau
bat logela bikoitz,
gosaria + zirkuitu
termala 2 lagunentzat.



Basa take away
jatetxeko bi gazta tarta
razio. Zaporeak
aukeran: gazta tarta
labea, pistatxo, kitkat,
mango, oreo, lotus edo
pantera rosa.



Arriola Antzokia,
Umeentzat Antzerkia :
Markeliñe "Hodei
guztien gaineratik".
Otsailak 1

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko
eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



'Ez esan' galdera-erantzunen jokoa martxan berriro Mallabian

Mallabiko Berbalagunek martxan ipini du berriro ere
ekainera bitartean egingo duten jokoa



lazko edizioko argazki bat.

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Urte hasieragaz batera hemen da Mallabiko Berbalagunek antolatzen duen 'Ez esan' galdera-erantzunen jokoa. Aurreko edizioetan legez, Mallabiaren eta mallabitarren inguruko jokoa izango da, eta herritarrek bost galderari erantzun beharko diete hileroko. Denak ondo erantzuten dituenak zuzenean finalean parte hartuko du. Berdinketa egonez gero, zozketa bidez erabakiko da finalera nor pasatuko den. Final handia ekainean izango da.

Parte hartzeko galdera-orriak herriko denda, taberna eta komertzioetan ipintzen dituzte eskuragarri, besteak beste. Gura duenak leku horietan hartu ditzake orriak. Bestela, telefonoz ere bidali daitezke eratzunak, 663 07 04 92 zenbakira whatsapp mezu bat bidalita.

Ardi txakurren erakusketa eta zaldi probak sanblasetan

Behien artean zabalduetako dermatosi nodular
kutsakorrak baldintzatutako azoka izango da aurtengoa

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

San Blasak ate joka daude eta Abadiñoko Udala azken kontuak lotzen dabil otsailaren 3ko azokan eskaintza zabala egon dadin. Joan zen astean hedabide honek iragarri zuen legez,

aurtengo azokan ez da ez behirik ez idirik egongo, Eusko Jaurlaritzako debekuak horrela aginduta, eta udala gauzak antolatu guran dabil hutsune hori betetzeko. "Behien artean zabalduetako dermatosi nodular

kutsakorrak urteroko azoka baldintzatzen duenez, ahalik eta San Blas feriarik erakargarriena izateko lanean gabil-tza", adierazi du Mikel Urrutia Abadiñoko alkateak. Hori horrela, beste hainbat ekintzaren artean, ardi txakurren erakusketa, zaldi probak eta gazta dastatzea egongo direla jakinarazi du udalak. Zaldi probek idi proben hutsunea beteko dute. Proba hauek San Blas egunean izango dira, arratsaldean.

Mendiolako errepedea konpontzeko lanak, martxan

Abadiñoko Udalak 264.145 euroko inbertsioa egingo du
Alfredo Baeschlin eta Atxa-Txiki arteko bidea konpontzeko



Mendiolako errepedeko lanak.

M. Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak Mendiola auzoko errepedea konpontzeko lanak hasi ditu. Alfredo Baeschlin kaletik Atxa-Txiki enpresaren bidea konponduko dute, hain zuzen ere. "Azken urteotan hainbat luizi gertatu da puntu berean, eta arazoari behin betiko irtenbidea ematea da obraren helburua", jakinarazi du udalak. Eta gaineratu dute udala inguruko lursailen jabeekin hartu-emanen egon dela, errepedea ibaiertzetik aldentu eta etorkizunean gertatu daitezkeen luiziak ekiditeko. Lur horien erabilgarritasuna eskuratzea da helburua.

"Obra hau aurrerapauso handia da. Mendiola auzoko segurtasuna bermatzea eta arazoari behin betiko irtenbidea ematea da gure lehentasuna", adierazi dute udal gobernuak kideek ohar batean.

120 arbola landatuko dituzte Iurretako Laixiar zelaian

Zaldai mendi taldeak eta Maiztegi eskolako guraso elkarteak plazan ipini dute hitzordua, 09:00etan

Aitziber Basauri IURRETA
Asteburuan, iurretarrekin hitzordua dute arbolak landatzeko. Domeka honetan, urtarrilak 25, 120 arbola landatuko dituzte Laixiar zelaian. Maiztegi herri eskolako Guraso Elkarteak, Zaldai Mendi Taldeak eta Iurretako Kofradien Batzordeak bultzatu dute ekimena, eta herri-tarrak parte hartzera deitu dituzte. Kotxez joateko, Aita San Migel plazan egin dute elkartzeko hitzordua, 09:00etan. 10:00etan hasiko dira arbolak landatzen. Gereziondoak, gaz-

tainondoak eta otsalizarrak landatuko dituzte, antolatzaileek jakinarazi dutenez. Lanak amaituta, parte hartzen dutenak luntxa izango dute Laixiarren bertan (euria eginez gero, San Markoko txokoan batuko dira). Antolatzaileek azaldu dutenez, gura duenak bere lanabesak eraman ditzake. Bertaratu gura duenak helbide elektroniko honetara idatzi dezake: laixiarzelai@gmail.com. Ume zein heldu elkartuko dituen ekimena orain urte bi antolatu zuten azkenengoz.



2024ko abenduan egindako arbola landaketaren irudi bat. KOFRADIEN BATZORDEA

Samartoiako lanak enkantera aterako dituzte Otxandion

A.B. OTXANDIO
Otxandioko Udalak Arte kalea paralelo doan Samartoi kalea berriztuko du aurrean. Urbanizazio lan horiek dira aurrengo udal aurrekontuan aurreikusitako inbertsio nagusia; 306.400 euro, hain zuzen ere. Obra horiek lehiaketa publikora atera ahal izateko, baldintza pleguak onartu berri dituzte azken udalbatzarrean. Samartoi kaleko obrek irisgarritasuna hobetzea dute helburu, udal ordezkariak jakinarazi dutenez. Bestalde, udal arduradunek esan dute udaletxean igogailua ipini ahal izateko proiektua lantzen dabilzala. Horretarako, 100.000 euroko aurrekontua lotu dute.



GARAIO UDALA

Erremata arrakastatsua

Garaitarrek azken urteotako errematarik arrakastatsuenetakoa egin zuten joan zen zapatuan, San Anton egunez. Giro jolasti eta zirikatzailan, herriarrek 1.134 euro batu zituzten txerrikiak, intxaurrak, esnekiak, pastelak zein ogia enkantera

aterata. Erramun Osa alkateak adierazi zuenez, "giro ezin hobean" egin zuten jardunaldia, eta nabarmendu zuen iaz baino diru kopuru politagoa batu zutela (1.098 euro 2025ekoan). Erremata amaituta, jubilatuek bazkaria egin zuten Otea Loran elkartean.

Kuadrillen Eguna antolatuko dute Zaldibarren, lehenengoz

Apirilaren 11rako finkatu dute hitzordua. Herrixen Jaixek eta Gaztetxea dabilza eguna antolatzen

Ekaitz Herrera ZALDIBAR
Gaztetxea eta Herrixen Jaixek mugimendua beste hitzordu bat prestatzen dabilza Zaldibarko lagun taldeak batzeko: Kuadrillen Eguna. Halako ospakizun bat antolatzen duten lehenengo aldia izango da eta apirilaren 11n egingo dute. Egitarauko xehetasunak jakiteko oraindino goizegi den arren, egun osoko jardunaldia egingo dute. "Herriko gazteak jaietan batzen gara normalean, baina badirudi hor bakarrik batzen garela. Eta Kuadrillen Egunagaz apur bat harago joatea

gura dugu, urteko gainerako egunetan ere batzea gura dugu", azaldu du Maddi Sanz antolakuntzako kideak. "Izan ere, jaiak oso ondo egon dira; Gaztetxea eta Herrixen Jaixek oso aktibo egon dira. Eta hori horrela, eragile biok apustu egin dugu Kuadrillen Eguna elkarregaz antolatzeke", gaineratu du Sanzek. Eta nabarmendu du ospakizuneko antolatzaileak gazteak direla oro har, baina jardunaldia adin tarte guztietara zabalik dagoela, bai prestaketa lanetarako bai egunean bertan jaira batzeko.

PABILIOIA SALGAI

Iurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE ELEXPE

ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateyexpe.com

CCOO sindikatuak dio Metal Groupek hartzekodunen konkurtsora joko duela

Ekaitz Herrera ABADIÑO
Metal Groupeko (Lebario, Abadiño) 48 beharginek enpresaren itxierak eraginda jarraitzen dute. CCOO sindikatuko Jose Cid ordezkariak ANBOTOr jakinarazi dionez, langileen ordezkariak eta enpresako arduradunak joan

zen astean batu ziren lantegiaren itxierari begirako negoziakete-kin jarraitzeko. Bilerak nobedade bat ekarri zuela jakinarazi du Cidek: "Orain arte iraungitze espedientea negoziatzen ibili gara enpresagaz, baina arduradunek esan ziguten har-

tzekodunen konkurtsora joko dutela", jakinarazi du. Hori horrela, langileei orain arteko kezka areagotu zaizkiela esan du Cidek, beldur direlako "kobratu beharrekoa kobratzeko atzerapen gehiago" izango ote duten. "Izan ere, diruak enpresatik kobratu barik, Fogasaren eskutik jaso beharko ditugu, eta horrek esan gura du posible dela jaso beharrekoa gutxiago izatea eta atzerapenagaz kobratzea", gaineratu du CCOO sindikatuko ordezkariak.



Langileak fabrika aurrean.

DURANGALDEA ASTEON

'Jo!' antzerkia urtarrilaren 23an Txanportan

ABADIÑO Txanporta Kultur Klubak antolatuta, *Jo!* antzezlan aurrekeztuko dute gaur, urtarrilak 23, 20:00etan. Sorkun eta Grego lagun minak aspaldi ez dira elkarregaz egon. Klean topo egin eta kirola egiten duten bitartean, ikerketa antropologiko bat eskainiko dute, umorea erabilia. Erabiliko duten metodologia bizitzako istorioak izango dira.

Fitness aretorako abonua martxan Durangon

DURANGO Durango Kirolakek igerileku zerbitzuetarako eta fitness instalazioetarako urteko abonua egiteko aukera eskainiko du berriro. Orain arte, eta iragarri zuten legez, urteko ordainketa ez zegoen eskuragarri 2026aren hasieran, tramitazio administratiboko prozesun zegoelako, prezio publikoak berrikusi eta eguneratzearen barruan. Durango Kirolak erakundeak dagoeneko martxan ipini du urteko abonua eta otsailaren 28ra bitartean egin daitezke eskariak.

Ikasleek 20 banku konpondu dituzte Durangon

DURANGO Durangoko Oinarrizko Lanbide Heziketako bigarren mailako zortzi ikasleek Laubideta kaleko eta inguruko 20 zurezko banku konpondu dituzte. Ikasleek bankuak desmuntatu dituzte, piezak ordezkatu, lixatu eta babes-tratamendua eman diete. Asier Perugorria Hezikuntza zinegotziak egitasmoa txalotu du: "Horrelako ekimenek agerian uzten dute Lanbide Heziketak ez duela bakarrik lanerako prestatzen, baizik eta komunitatearen ongizatean ere laguntzen duela".



PARTE HARTU DUTEN TALDEAK.

Giro ederra Berrizko nekazaritza olinpiadetan

BERRIZ Asteburuan Berrizko San Antonio jaiak ospatu dituzte, eta, astelehenean, herritarren artean oso preziatuak diren nekazaritza olinpiadak egin zituzten. Aparteko giroa sortu zuten eta hiru talde giro sanoan lehiatu ziren sari nagusia irabazteko helburuagaz. Harmailetan nabarmena zen festa giroa. Talde irabazleak 250 euroko saria eraman zuen.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOr irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



POLITIKAN

MARKEL LARRUSKAIN
EH BILDU

Egin dezagun batera

Zein gai daude pil-pilean? Zeri buruz hitz egiten dugu eta zeri buruz hitz egitea nahi dugu? Askotan komunikabide nagusietatik esaten direnak ez datoz bat egunerokoan ditugun burohauste eta ezinegonekin. Hel-du diezaiegun benetan arduratzen gaituzten gaiak eta egin dezagun politika hortik.

EH Bildutik eztabaida politikoaren erdigunean herria, herritarren kezka eta herri honek dituen aukerak eta erronkak jarri nahi ditugu. Hau da gure jarduteko modua. Durangon ere horretan ari gara. Auzoz auzo bilera irekiak egiten gabiltza, eta baita eragile, elkarte eta pertsona askorekin biltzen ere. Herritarren iritzia zeintzuk diren entzun eta jasotzea da gure asmoa, bere ekarpena egin nahi duten pertsonen ezker independentismoaren atea irekiz. Izan ere, momentu honetan ezinbestekoa da indarrak batzea, ezin gara gure arteko eztabaidetan katramilatu, banatzen gaituzten gauzetatik baino, batzen gaituen horretatik abiatu behar gara. Hau da bidea etorkizun desiragarriak eraikitzeko.

Ez dago formula magikorik, baina lanak fruituak ematen ditu. Beraz, jarraitu dezagun, autoritarismoaren aurrean aniztasunean eta eskubideetan oinarritutako fronte zabalak eraikitzen. Guztion artean soilik da posible, ekin lanari.

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrindia.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Marketina: Defe Izaga Yeregui.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK




Hezikuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua




LERROEI JARRAITU

Lerroen gainetik marraztu



LABIRINTOA



ITZALAK

Zein itzal dagokio irudi bakoitzari?



MARGOTU

Margotu gurago duzun moduan





Maite Bayón eta Fernando Barado. MARKELIÑE

"Umeekin denbora gehiago pasatzeko gonbita da obra"

ÍÑAKI EGILUZ MARKELIÑE

ANTZERKIA 'Hodei guztien gainetik' da Markeliñeren azken sorkuntza; oraintsu Zornotzan estreinatu eta gero, otsailaren 1ean Elorrioko Arriolan egongo da ikusgai

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Lau hamarkada baino gehiagoan martxan egon eta gero, oraindino lanerako gogoz eta proposamen berriak aurkezteko indarrez daude Markeliñe konpainiako kideak. Urtarrilean *Hodei guztien gainetik* lana estreinatu dute.

Zelako gaua izan zen estreinaldikoa? Antzokia beterik egon zen eta bertaratutakoak gogotsu zeuden lana ikusteko. Urte dezente daramagu Zornotzan lanean, eta, herriko jendeaz gainera, sektoreko kideek ere gogoaz zuten

Markeliñeren azken lana ikusteko. Estreinetan kimika berezia sortzen da antzezlanean parte hartu dugunon eta publikoaren artean, batzuek emateko eta besteek jasotzeko. Pozik gaude, iritzi positiboak jaso ge-

"ARTISTA INGURUAN IKUSTEN DUENETIK ELIKATZEN DA, PARADOXA EDO KONTRAESANETATIK"

nituelako; pozik eta harro egin dako lanagaz.

Lau hamarkada baino gehiagoko ibilbidea duzue. Estreinetan urduri ipintzen zarete oraindino?

Estreinuen aurretik beti dago tentsio berezi bat. Kontuan izan estreinaldi bat beti izango dela antzezlan bat gutxien errodatuen dagoen unea. Ikuskizun bat bizirik dagoen zerbait da eta hobetu egiten da jendaurrean egin ahala. Interpretetik denbora behar dute aritzeko, eroso sentitzeko, eta emanaldiak egin ahala lortzen

da hori. Dena dela, estreinaldietan beti egoten da urduritasun puntu hori. Aldi berean, horrek egiten du berezi estreinaldi bat. Tentsio hori dela eta, oso energia polita sortzen da.

Estreinaldien aurretik lan handia egiten da, eta une horretan ikusleen aurrean aurkeztuta, euren onarpena itxaroteko momentua izaten da; ikusleak aurreko lan hori guzti hori balioztatzen du, zelanbait esateko; azterketa bat da eta horregaitik sortzen da tentsio hori. Baina, tira, hainbeste urtean aritu eta gero esperientzia handia dugu eta horrelakoetan nahiko argi izaten dugu zelan jokatu. Aurretik proba asko egiten dugu, eta, publikoarengana eramaten badugu, proposatzen dugun horrek zerbait baduela ziur gaudelako da, neurri batean. Elementu berriak sartzen ditugun arren, formatua eta plastikak menperatzen ditugu, eta horrek segurtasuna ematen digu lan egiterako orduan.

Birari ekingo diozue orain.

Udaberri amaierara arte aretoetan aurkeztuko dugu antzezlan, inguruko hainbat aretotan. Hogeita hamar bat funtzio egingo ditugu. Ondoren, jaialdietan aurkeztuko dugu, hori delako egin beharrekoa gero kanpoan eskaini ahal izateko. Zelanbait esatearren, ikuskizunaren biraren bigarren fasea izango da hori. Inguruan aurkeztu eta gero, kanpora joko dugu obra aurkeztera.

Istorioko protagonista jolastea ahaztu zaion aita bat da. Ohikoa da zuen lanetan hausnarketa bultzatzea.

Lehenengo eta behin, ikuskizunaren helburua ikuslea entrenitzea da; hau da, barre egitea bilatzen dugu, edo alde bisualagaz harritzea, adibidez. Funtsean, horixe da edozein adierazpen artistikoren helburua. Horrez gainera, bai, ikusleak gogoeta egitea gura izaten dugu. Azken finean, artista inguruan ikusten duenetik elikazen da, munduko paradoxa eta kontraesanetatik. Gai hau aspalditik bizi dugu inguruan. Lan ordutegiak oso exigenteak dira eta horrek gu-

"ESTREINALDIETAKO URDURITASUNAGAZ KIMIKA BEREZIA SORTZEN DA; HORREK EGITEN DITU BEREZI"

raso-ume hartu-emanen eragiten du; hau da, badirudi gurasoek ez dutela denborarik seme-alabei eskaintzeko. Hain zuzen ere, horixe esan gura dugu guk, denbora hori oso garrantzitsua dela; gurasoek umeekin denbora gehiago pasatzeko gonbidapena da antzezlan.

Orain gutxi, diputaturen bati entzun nion esaten 24 orduko haurtzaindegiak zabaltzeko proposamena egingo zutela. Ideia honen atzean, enpresen produktibitatea dago, langileen eta enpresen eskubidea eta kontziliazioa bilatzeko. Baina hor non geratzen da seme-alabek euren gurasoekin egoteko duten eskubidea? Horrelako kontraesanetan fijatzen gara sortzerakoan.

Sortze prozesuetan zeri ematen diozue lehentasuna, horrelako ideiei ala mugimenduak eta materialak lantzeari? Zer dator lehenago?

Gure sortze prozesuak oso luzeak izaten dira eta ez dugu modu zehatz bat. Kasu honetan, beste askotan legez, esperimentazio fase bat izan dugu, artistikoa, bai materialekin bai gorputz mugimenduekin. Antzerkigintzan 'asombros' direlakoek garrantzi handia dute, ezinbestekoak direlako ikuslearen arreta gureganatzeko, eta umeentzat zein nagusientzat balio behar dute. Horixe da antzerkigintzako gauzarik korapilatsuena, eta gaxena lortzeko. Horiek landu ahala, jolasteko materiala lortzen dugu, eta sortutako 'asombro' horiek erabiltzeko justifikazioa lantzen dugu gero. Paraleloki, prozesuak aurrera egin ahala, ideiak argiago ikusten dituzu, ekintza horiek txertatzeko testuingurua sortzeko.

Kasu konkretu honetan, Catherine L'Ecuyer pedagogoaren *Educar en el asombro* liburuaren irakurketa ere gaxoa da. Emakume honek hezkuntzarako planteatzen duenak eta guk artistikoki egiten dugunak lotura bat dutela ikusten dugu. Hortik aurrera, markoa eraikitzen dugu. Eduki aldetik ikusgarritasuna duen obra bat sortzera zoaz, eta, aldi berean, hausnarketarako edukia sortzen duzu. Prozesu luzeak izaten dira eta material asko sortzen da bertan. Sortu, baztertu eta proposamen berriak gehitu. Ez dago gehiago. Pendulu moduko bat irudikatzen dut nik, eta, geratzen denean, lana prest dago estreinatzeko. Horrela sortzen dugu Markeliñeren plastika partikularra.

Bederatzi lan Antzerkia Bultzatuz ekimenean

ANTZERKIA Antzerkia Bultzatuz zikloaren hamabigarren edizioa aurkeztu dute; lehenengo emanaldia gaur izango da eta Luna Llenak 'Los Ángeles de Sabin' lana aurkeztuko du, 19:00etan, Ibarretxen; helduentzako umore antzezlan da

Aritz Maldonado IURRETA

Iurretan antzerkizaletasuna bultzatzeko asmoz sortutako Antzerkia Bultzatuz zikloaren edizio berria martxan da. Aurtengo hamabigarrena da. "Orain hamabi urte ekin genion ibilbide honi, Anderebide elkar-teagaz batera, kultur etxeko antzerkiaren programazio finkoa berritzeko, eta, betiko moduan, iurretarren erantzuna oso ona izan da eta hori eskertu gura dugu", azaldu du Zorione Fundazuri Herriararren Batzordeko presidentek. Hurrengo hitzordua gaur izango da. Luna Llena konpainiak *Los Ángeles de Sabin* antzezlan aurkeztuko du bertan.

Bestalde, apirilaren 17an, Arrapaladan konpainia elorriarrek *Abduzioa. Ke barbaridad!* komedia taularatuko du. Elorriarrek fedea, kritika soziala eta zientzia fikzioa nahasten dute obra honetan. Fundazuriaren berbetan, antzerki zikloak



Anderebide elkarteko eta udal ordezkariak, aurkezpenean.

programazio orekatua izango du. Besteak beste, *Descosame las alas* bakarriketa, Kiki, Koko eta Moka pailazoaren *Bizi-bizi zirkua* eta *El rey león* musikaren *Bizia* egokitzen ikus-terko aukera egongo da.

Iaz legez, sarrerak ordaindu egin beharko dira, hiru euroko "prezio sinbolikoan" helduentzat, eta euro bateko prezioan 18 urtetik beherakoentzat. Ibarretxen bertan erosi daitezke sarrerak.



Larrua proiektuaren 'La senior'.

'La senior' Berrizko Kultur Etxeko programazioa abiatzeko

DANTZA Apirila bukaerara bitartean, dozena bat ekitaldi eskainiko dituzte Berrizko egitarauaren barruan

A. M. BERRIZ

Dantza, musika eta antzerki ikuskizunek osatzen dute Berrizko Kultur Etxearen eskaintza berria. Larrua proiektuaren *La senior* dantza emanaldiak emango dio hasiera denboraldi berriari, urtarrilaren 31n. Pieza honek esperientzia eta heldutasuna aldarrikatzen ditu, eta dantzan eta gizartean adinak eta adinekoek dituzten estereotipoak apurtzeko helburua du; 40 urte baino gehiagoko dantzariak parte hartzen dute.

Antzerkiak pisu handia izango du egitarauan; horrela, Ar-

tedramak eta Axutek elkarlanean sorturiko *Nor naizen baneki*, Markeliñeren *Hodei guztien gainetik* eta Gorakadaren *Moko* lanak egongo dira ikusgai; Kari-rika konpainia durangarraren *Hurrengo geltokia* eta Anakotz Lasarteren *Aitatxo* ere taularatu-ko dituzte.

Antzerkiaren gainera, musikaren arloan Gar talde durangarrak *Oraina eskuetan* diskoa aurkeztuko du, 360 graduko formatuan, apirilaren 24an. Bestalde, Xabier Amurizak, Arkaitz Minerrek eta Mikel Markezek *Gezurri zor* lana aurkeztuko dute.



GAI LIBREAN

GARAZI ARRIZABALAGA CABRERIZO DURANGOKO MUSEOA

Isilaraziak XXVI

Bidaia ikasteko modu bat da. Hori argi dugun zer bait da. Gaur egun, bidaia hain erraza den garai honetan, askok izan dugu beste herrialdeetako kulturak ezagutzeko aukera.

Nire azken bidaia Sofiara izan da, Bulgariara. Esan beharra daukat, joan aurretik oso gutxi nekien bertako historiari eta arteari buruz, eta harrituta geratu naiz zeinen hurbil eta, aldi berean, zeinen urrun gauden haien historiari eta kulturari. Beti egin ohi dugun bezala, bertako museoak bisitatzea joan gara, eta horri esker emakume baten izena entzun dut lehen aldiz: Vaska Emanuilova. Bere museo propioa ere badu Sofian.

Emanuilova 1905ean jaio zen, Koprivshtitsan, Bulgarian. Sofiako Arte Akademian ikasi ondoren, beka bati esker Parisera bidaia zuen, eta han jarraitu zituen arte ikasketak. Parisko testuinguru artistikoak erabat

zabaltzen zizkion begiak, eta garai hartan hasi zen bere lanetan hain bereizgarria den gai bat lantzen: emakume biluzien irudikapena, batez ere terrakotazko eskulturen bidez. Bidaia horretan, beste artista bulgariar batekin ere ikasi zuen: Mara Georgievarekin. Bien arteko lan-harremanak harreman sentimentala ere ekarri zuen, eta elkarrekin jarraitu zuten bizitzaren amaierara arte.

Testuingurua hobeto ulertzeko, kontuan hartu behar da Bulgarian artistek ez zutela izendapen hori jaso XIX. mendearen amaiera arte. Ordura arte, arte erlijiosoa zen nagusi, eta artistak Jainkoaren tresna huts gisa ulertzen ziren. Horregatik, askotan ez ditugu artelanen egileen izenak ezagutzen. Testuinguru horretan, eta emakume homosexualak izanik, erraza da imajinatzea Vaskak eta Marak beren bizitzan entzun behar izan zituzten iritzi eta aurreiritziak.

Hala ere, zailtasun guztien gainetik, lorpen handi bat ere eskuratu zuten: 1954an, komunistek Bulgarian boterea hartu zutenaren hamargarren urteurrena zela eta, Sobietar Armadaren monumentua eraikitze-ko enkargua jaso zuten. Sofiako Prince's Garden parkean dago, katedraletik gertu. Bertan, brontze-ko hainbat figura ikus daitezke: behealdean gudariak (emakumeak eta haurren bat tartean), eta dorre altu baten goialdean lau figura (bi gizonezko armekin, eta emakume bat umea besoetan duela).

2023ko abenduan monumentu hori eraitsia izan zen, Errusiak Ukraina inbaditu ondoren. Testuinguru politiko berriak eta jarrera homofoboek eraginda, Emanuilovaren eta Georgievaren ondarea berriro ere erasopean geratu da. Ez da, tamalez, istorio berria.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 23

DURANGO Eskulanak
Paperezko elektronika tailerra (Mabel de La Fuente). Bost urtetik gorako umeentzat.
Otamotzena auzogunean, 17:30ean.

ELORRIO Ikuskizuna
'Izeba Txirrita'. Olatz Gorrotxategik sortutako lana, 'Geuretik sortuak' ekimenaren eskutik.
Arriola Antzokian, 20:00etan.

ELORRIO Erakusketa
'Estelak'.
Iturri kultur etxean, otsailaren 27ra bitartean.

IURRETA Antzerkia
'Los ángeles de Sabin' (Luna Llena konpainia).
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

OTXANDIO Bertsoak
Berto afaria Aroa Arrizubieta, Sabin Abarrategi eta Janire Arrizabalagagaz.
Gaztetxean, 21:30ean.

ZORNOTZA Musika
'Ahots Kordak' (Eñaut Elorrieta & Alos Quartet).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZORNOTZA Erakusketa
'Afrikako oroitzapenak: Sabanaren begiak' (Jon Batizen argazkiak).
Zelaieta zentroan, urtarilaren 30era bitartean.

ZAPATUA 24

ABADIÑO Musika
Magala. Haize Arrosa.
Errota kultur etxean, 19:00etan.

BERRIZ Antzerkia
'Trajea' (Txalo Produksioak konpainia).
Kultur Etxean, 19:00etan.

DURANGO Musika
'Glossaria' (Bogoroditsie Abesbatza).
San Agustin kulturgunean, 19:00etan.

IURRETA Bizikleta irteera
Zeberiora irteera. Txirrindulari Elkarte. *lurretan, 10:00etan.*

ZALDIBAR Musika
DJ Maratoia.
Gaztetxean, 22:00etan.

DOMEKA 25

DURANGO Antzerkia
'Semaforoa' (Logela Multimedia). *San Agustin kulturgunean, 18:00etan.*

ELORRIO Antzerkia
'Carnaval de la vida' (Canti Vaganti konpainia).
Arriola antzokian, 17:00etan.

IURRETA Bizikleta irteera
Astorekara irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarte. *lurretan, 10:00etan.*



MAGMA MIA

ABADIÑO Antzerkia
Magma Mia konpainiak *Jo!* lana aurkeztuko du Abadiñon. Sorkun eta Grego, aspaldi elkar ikusi ez duten lagun min biren gorabeherak kontatzen ditu obrak. *Urtarrilak 23, barikua, Txanporta kultur etxean, 20:00etan.*

MARTITZENA 27

IURRETA Erakusketa
'25 urte mendiz mendi'. Zaldai Mendi Taldearen sorrerako argazkiak. lurretako IX. Mendi Asteko ekitaldien ordutegian. *Goiuria kulturgunean, otsailaren 1era bitartean.*

IURRETA Ikus-entzunezkoa
'Munduko ibilbiderik onena? (Peru)'. (Mikel Bringaz). Zaldaik antolatutako lurretako IX. Mendi Astearen barruan. *Goiuria kulturgunean, 19:00etan.*

EGUAZTENA 28

IURRETA Ikus-entzunezkoa
'ZAZPI. Kontakizun bat, tontorrez tontor'. (Mikel Lizarralde). Zaldaik

antolatutako lurretako IX. Mendi Astearen barruan. *Goiuria kulturgunean, 19:00etan.*

EGUENA 29

DURANGO Tailerra
'Antar Yatra'. Ikus-entzunezko esperientzia meditatiboa, lasmina Balenciagak gidatuta. *Otamotzena auzogunean, 19:00etan.*

IURRETA Ikus-entzunezkoa
'Shukram. Bizitzari mila esker' (Maite Zumarraga eta Idoia Rubial). Zaldaik antolatutako lurretako IX. Mendi Astearen barruan. *Goiuria kulturgunean, 19:00etan.*

BARIKUA 30

ABADIÑO Antzerkia
'Euskaldungak' (Aroa Blanco eta Maite Lopez).
Txanporta kultur etxean, 19:00etan.

ABADIÑO Bertsoak
Berto afaria Maialen Lujanbio eta Nerea Ibarzabal bertsolariekin. *Gaztañodi elkarte, 21:00etan.*

BERRIZ Berbaldia
'Heriotzari begirada bat. Haur eta nerabeengandik ikasten'. (Hizlaria: Manex Beristain). Izen ematea: *ikastaroakumerri@gmail.com. Umerri eskolan, 17:30etik 19:00etara.*

ELORRIO Antzerkia
'Lo peor que le pueda pasar a un niño' (Ékoma Teatro).
Arriola antzokian, 20:00etan.

IURRETA Ipuinak
'Matilda', ipuin kontaketa Mireia Delgadoren eskutik. Roald Dahlen esker oneko jardunaldi literarioen barruan. Izena eman behar da. *Herri bibliotekan, 18:00etan (5 urtetik gorako umeentzat) eta 19:00etan (helduentzat).*

IURRETA Ekitaldia
'25 urte mendiz mendi', Zaldai mendi taldearen sortzaileei omenaldia + Zaldai Mendi

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEAN

Rondallas
Domeka 25: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA



Hamnet
Barikua 23: 18:00, 20:30.
Zapateria 24: 18:00, 20:30.
Domeka 25: 17:00, 19:30.
Astelarena 26: 17:45, 20:15
Martitzena 27: 17:45, 20:15.
Eguaztena 28: 19:00.

Ídolos
Barikua 23: 18:00, 20:30.
Zapateria 24: 18:00, 20:30.
Domeka 25: 17:00, 19:30.
Astelarena 26: 17:45, 20:15.
Martitzena 27: 17:45, 20:15.
Eguaztena 28: 19:00.

Sin piedad
Barikua 23: 20:30.
Zapateria 24: 20:30.
Domeka 25: 19:30.
Astelarena 26: 20:15.
Martitzena 27: 20:15.

Sin piedad 3D
Barikua 23: 18:30.
Zapateria 24: 18:30.
Domeka 25: 17:30.
Astelarena 26: 18:15.
Martitzena 27: 18:15.

La Traviata (opera)
Eguaztena 28: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIAN

Rondallas
Zapateria 24: 20:00.
Domeka 25: 20:00.
Astelarena 26: 20:00.

GAZTETXEAN

La mort de Guillem
Eguaztena 28: 19:30.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

La asistenta
Zapateria 24: 20:00.
Domeka 25: 20:00.
Astelarena 26: 20:15.

Los guardianes del diente mágico
Zapateria 24: 17:00.
Domeka 25: 17:00.
Paradise is burning (J.B.G.A.)
Martitzena 27: 19:00.

Erronkaren 2025eko sari emate ekitaldia.
Askondoko aterpean, 18:30ean.

ZORNOTZA Antzerkia
'Trajea' (Txalo Produksioak).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.



Hile batzuetatik hona Garain bizi da.

"Bizikletagaz 'feeling' berezia daukat. Ia-ia bat gara"

JULEN SAENZ DE ORMIJANA TRIAL BIKE GIDARIA

TRIAL BIKE Hiru bider taldekako munduko txapelkun izan den kirolaria Garain bizi da egun, eta eskualdeko inguru naturalak bere entrenamendu eremu nagusi bihurtu ditu

Joseba Derteano GARAI

Julen Saenz de Ormijanak (Amarita, 2000) sekulako palmaresa du trial bike-n: hiru bider munduko txapelduna izan da taldeka, eta birritan txapeldunordea banaka. Europako txapelketan brontzezko domina bi ditu. Urri-tik hona Garai du bizileku.

Zelan heldu zara Garaira?

Nire bikotekidea markinarra da eta Mallabian lan egiten du, Orbea enpresan. Orduan, bion tarteko puntu bat aukeratu dugu bizitzeko. Oso gustura nago Ga-

rain. Oso herri polita eta lasaia da. Niretzat ez da herri txikia. Kontuan hartu Amaritan 60 lagunetik behera bizi garela. Gainera, hemen mendi bizikleta hartu eta edonora joan naiteke.

Zeintzuk inguru esploratu dituzu?

"DURANGOKO EDO GARAICO JAIETAN ERAKUSTALDIEN BAT EGITEA GUSTATUKO LITZAIDAKE"

Asko geratzen zait esploratzeko, baina ibili naiz, bai. Hemen entrenatzeko instalaziorik ez dagoenez, inguru naturalak bilatu ditut entrenatzeko. Marmol izeneko harrobian dauden harri artean entrenatzen naiz. Durangoko lagun batek eman zidan haren berri. Oiz inguruan ere aurkitu dut gune bat harriak dituen, baina han entrenatu aurretik ingurua apur bat garbitu beharko dut. Abadiñoko Atxarte harrobian ere izan naiz, baina besteak baino apur bat



Saenz de Ormijana munduko txapelketan lehiatzen. ZUKIBOPHOTO

arriskutsuagoa da, harri asko dagoelako lurrian, eta jausiz gero min hartu daiteke. Batzuetan Aretxabaletara ere joaten naiz; han entrenatzeko instalazio bat dago.

Durango eta inguruko herriak 'probatu' dituzu?

Ez zait asko gustatzen *street* deitzen dioguna egitea, jendeak han-hemen ez ibiltzeko eskatu diezazukeelako. Baina Garain ibili naiz apur bat, pilotaleku inguruko hormetan. Durangon ere ibili nintzen, orain bost bat urte, lagun batez. Gogoan dut zinema ondoko kale bateko aulki eta hormetan ibili ginela.

'Eroriz ikasten da oinez' dio esakerak. Zure kirolera aplikatu daiteke?

Zalantzarik barik. Ikasi dudana guztia eroriz eta akatsetatik ikasiz izan da. Kanpotik begiratuta, kirol arriskutsua ematen du, baina ez dut uste horrela denik. Urte askotako trebakuntzagaz, bizikletagaz kontrol eta *feeling* berezi bat daukagu. Bizikleta eta biok ia-ia bat gara. Huts egin eta jausi naiteke, jakina, baina ez da normalena.

Bisualki kirol erakargarria iruditzen zait.

Ikusgarria da, bai, txapelketetan eta gu lanean ikustea asko gustatzen zaio jendeari. Baina ikustetik probatzera gutxi animatzen dira. "Uf, nik ezin dut hau egin", pentsatzen dute. Nire ustez, bizikleta gustuko dutenei asko eman diezaiekeen kirola da. Merezi du probatzea, trialak kontrol puntu estra bat ematen dizulako bizikletagaz: noiz balaztatu, pisua nora bota, belau-nak, aldakak... posizio guztia. Bizikleta gainean suertatu daitezkeen egoerak hobeto kontrolatzen irakasten dizu.

Noiz eta zelan zaletu zinen kirol honetara?

10 urte nituen. Aita motorrekin ibiltzen zen eta, jakina, niri ez zidan motor bat erosiko; mendi bizikleta bat erosi zidan. Hasieran jesarlekua kentzen nion edo guztiz jaisten nuen, trialeko baten itxura emateko.

25 urtegar duzun palmaresa izateak zer esan gura du zuretzat?

Sekula ere ez nuen imajinatuko. Sinestea ere kosta egiten zait. Hori bai, esfortzu eta lan handia eskatu dit.

Zer helburu duzu hasi berri dugun urteari begira?

Lehenengo eta behin, Espainiako Txapelketa daukat, eta titulu berririo irabaztea da helburu nagusia. Urteko helbururik garrantzitsuenak Munduko Txapelketa izango da, berriro Arabian egingo dena. Banakakoan urrea irabazteko borrokatuko naiz. Iaz oso gutxigaitik geratu nintzen bigarren, eta irabazi dezakedala uste dut. Gero Munduko Kopako probak ere izango ditut, Frantzian, Alemanian eta Polonian.

Zeintzuk dira kirol minoritario baten aritzearen eragozpen nagusiak?

Profesional izaten ahalegintzen nabil, baina gata da, hedabideetan ez duelako oihartzun handirik. Laguntzeko prest dauden hiru-lau trial marka baino ez daude, eta asko borrokatu behar da kontraturen bat lortzeko. Munduko Txapelketa irabazteagaitik ematen duten dirua ez da beste diziiplina batzuetan bestekoa. Kontuan hartu nire bizikletak 4.500 euro inguru balio duela. Beraz, denarik egiten dut. Bizikleta eskola bat dut Gasteizen, Trial Bizikleta School izenekoa, eta trial erakustaldiak egiten ditut. Durangoko edo Garaiko jaietan erakustaldiren bat egitea gustatuko litzaidake.



Teknei Zornotza taldeko zaleak, Larrea kiroldegian.

Teknei Zornotzak lider jarraitzen du Hirugarren FEB Mailan

SASKIBALOIA Talde zornotzarrak jokaturiko 14 partiduetatik 13 irabazita amaitu du lehenengo itzulia

J.D. ZORNOTZA Segidan hamabi partidu irabazi eta gero, Teknei Zornotzak denboraldiko lehenengo porrota jaso zuen orain asteburu bi. Zorionez, zornotzarrek berehala jaso dute burua, porrot batetik errekuuperatzeko sendagairik onena hartuta: garaipena. Joan zen asteburuan 71-76 menderatu zuten Kantabriako Solares taldea. Horrela, taldeak Hirugarren FEB Mailako lider jarraitzen du, 13 garaipenegaz. Asteburu honetan, Teknei Zornotzak bigarren itzuliari ekingo dio. Etxean eta zaleen

laguntzagaz, bolada onari jarraipena ematen ahaleginduko da Recoletas Salud Carbajosa taldearen aurka. Salamancako taldea sailkapenaren erditik behera dago, sei garaipen eta zortzi porrotegaz. Beraz, aurkari aproposa dirudi beste garaipen bat batzeko. Teknei Zornotza Zilarrezko Ligatik jaitsi zen iaz, hainbat urtean maila horretan sendo aritu eta gero. Ildo horretatik, denboraldi honetako helburua goiko postuetan ibiltzea eta mailaz igotzeko aukera bizirik mantentzea da.


Peru Irazola goi mailan Superenduro proban, BECen

MOTORRA Pilotu elorriarra laugarren tokian sailkatu da munduko txapelketako jardunaldi batean

J.D. ELORRIO Joan zen asteburuan Superenduroko Munduko Txapelketako proba bat jokatu zen Barakaldo-ko BECen, eta, bertan, Peru Irazola Arbulu (Elorrio, 1994) Espainiako txapelketari dagokion mailan aritu zen. Ohiko modalitatea ez duen arren, Irazolak oso maila ona eman zuen. Entrenamendu kronometratuetan bigarren postua eskuratu zuen, eta ondoren jokaturiko lasterketa bietan hirugarren eta laugarren sailkatu zen, hurrenez hurren. Emaita horiei eskerrak, sailkapen orokorrean laugarren postuan amaitu zuen, podiumaren atarian.



Irazola, BECeko saio batean.



Lehenengo mailan zortzi bikote aritu dira, eta bigarreanean hamabi.

Abadiñoko pilota txapelketa herrikoia azken txanpan sartu da

PILOTA Domeka honetan maila bietako finalerdiak jokatu dituzte eta finalak urtarrilaren 31n izango dira

J.D. ABADIÑO Abadiñoko pilota txapelketa herrikoia azken fasean sartu da. Iazko urrian hasitako lehiaketa finalaurrekoak domeka honetan jokatu dira, eta final handiak urtarrilaren 31n izango dira, San Blas jaiei bueltan. Domekan, 16:30ean, lehenengo eta bigarren mailako bina partidu jokatu dira Zelaietako pilotalekuan. Bigarren mailako partiduak honako hauek dira: 'Soloko' eta 'Okarantza' Amianoren eta Zarrabeitiaren aurka, eta Urizar eta Mendiola garai 'Txiri'-ren eta Josuren aurka.

Lehenengo Mailako bikote finalista bat Unai-Arrieta eta Arbiourrutia-Izagirre bikoteen artean irtena da. Maila nagusiko beste finalerdian Arana-Urrutia eta Rober-Amutxastegi bikoteek neurtuko dituzte indarrak. **Ikusmina partiduetan** Atxtxiki Pilota Klubak antolatzen duen txapelketak interesa piztu du herritarren artean, eta Zelaietako pilotalekuan giro beroa sortzen da partiduak bertatik bertara jarraitzeko. Bigarren mailan hamabi bikote aritu dira, eta lehenengoan zortzi.



JOKALDIA

IÑAKI IZA ZARAZUA PILOTARI OHIA


Triste baino gehiago, haserre

Triste nago. Triste baino gehiago, haserre, egia esan. Esku pilota profesionala hartzen ari den norabideak tristatzen nau, eta noren esku dagoen ikusteak are gehiago haserretu. Azken asteotan, esku pilotaren ekosistema inarrosi eta kirolaren kudeaketaren etorkizuna aldatuko duten hainbat erabaki hartu dira: EPELen izen-aldaketa, Bidarte Aspekto administratzaile bakarria izateari utzea, enpresaren akzio gehienez Baintet Taldeari salmenta... Aurrerantzean gure kirolaren kudeaketa monopolio bihurtzeko arriskua agerikoa da, Baiko Baintet Talde-rik irten dela argudiatu duten arren. Ez dakigu erabaki hauek zer ekarriko duten. Informazioa falta da eta, batez ere, ekintzak. Baina, gidariak nor diren ikusita, ez dago baikor izateko arrazoi handirik.

Esku pilota astindu duen berria hori izan bada ere, azken hilabeteen beste hainbat gairen inguruan ere piztu da eztabaida. Nik, zehazki, abenduaren 20an Pilotarien Elkarteak kaleratutako kezkazko komunikatua hartu nahi dut kontuan. Bertan, pilota profesionalaren kudeaketa hartzen ari den norabidearekiko kezka azaldu, eta hainbat kexa plazaratu zituzten: plantillen eta partiduen murrizketa, **"AZKEN ASTEOTAN ESKU PILOTAREN EKOSISTEMA INARROSI DUTEN HAINBAT ERABAKI HARTU DIRA"**

enpresaren diru-sarrerak handitzen ari diren bitartean; pandemian egindako esfortzu ekonomikoa aintzat hartu ez izana; eta beste hainbat. Honek ere tristura eta haserre eragin dizkit. Tristura kirolaren funtsezko protagonisten egoeratik. Eta haserre, 2020ko greban zeuden pilotariek —Larunbe salbu— erabaki zutelako greban ez zeuden bi pilotarik eta enpresaren aldeko jarrera hartu zuten beste bik sortutako elkarte baten sartzeari, haren bidez greba amaierako akordioa sinatzeko. Erabaki horrek hauteskunde sindikalak eta hitzarmen kolektiboaren negoziazioa zapuztu zituen, jakinik, gainera, akordio hark ez zuela inolako balio juridikorik. Horrela, langileen eskubideak bermatzeko tresna bakarria baztertu zen, eta pilotariak babesik gabeko akordioaren menpe geratu ziren. Ondorioak bista-koak dira. Ura pasa eta gero, alferrik da presa egitea.

KOMIKIA UNAI GAZTELUMENDI

SOKA
TIRA

GUARDIAKO BOTIKAK

URTARRILAK 23, BARIKUA

09:00-09:00

Etxebarría, Montevideo etorb. 2. - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

URTARRILAK 24, ZAPATUA

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

URTARRILAK 25, DOMEKA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

URTARRILAK 26, ASTELEHENA

09:00-09:00

De Diego, Intxaurren 22. - Durango

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

URTARRILAK 27, MARTITZENA

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

URTARRILAK 28, EGUAZTENA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

URTARRILAK 29, EGUENA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

24 ordutik zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK




IURRETA

Joan zen barikuan **Zelaieta Herri Eskolako LH5. eta LH6. mailako ikasleak** ANBOTÖren bulegora etorri ziren bisitan. Txintxo-txintxo entzun zituzten gure proiektuari buruzko azalpenak. Bejondeizuela!

DURANGO

LaidaZorionak, maitia!
Hain pozik jarrai dezazula espero dogu. Asko maite zaitugu. Danel, aita eta ama.

Uxue

Zorionak, **Uxue!** Oso ondo pasatu zure eguna. Asko maite zaitugu!

DURANGO

OihanZorionak, **Oihan!** Urtarrilaren 25ean 10 urte egingo dituzu. Lagunekin eta familiarekin egun polit bat pasatzea espero dugu. Etxekoan partez, besarkada eta muxu handi bat.

GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 40 14 00
Gozatu Gozotegia
[gozatugozotegia](https://www.gozatugozotegia.com)

Urte askotarako!

Zorionak Intza, Irati eta Igor (1.048.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etorri zaitez Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

IBARRETXE KULTUR ETXEAN
ANTZERKIA BULTZATUZ 2026

Otsailak 6 19:00
ELLAS DE ORO
Proyecto cultura La liquida
Helduentzat

SARRERAK
Umeak 1€ / Helduak 3€
Sarrerak hartzeko Ibarretxe Kultur Etxean

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2. o. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

GREMIOEN GIDA

 Zurgintza  Eraberritzeak Interiorismoa Aroztegia NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK  www.leike.eus Antso Estegiz, 3 Durango Tlf: 94 681 72 29	 Zurgintza  EGUR ERAIKUNTZAK TEILATU ETA BARRUKO LANAK  Asier Abendibar 635 74 84 65 www.carpinteriaaterpe.com	 Dekorazioa  Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu Eitua Industrialdea, 45 Garaila A - BERRIZ Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421 info@jaiobarnizatuak.com www.jaiobarnizatuak.com
 Elektrizitatea  ELECTRICIDAD JON 622 684 284 electricidadjon@outlook.es	 Iturgintza  M.Z.O. ITURGINTZA - GASA BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.  Mallabiena industrigunea, 6 48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862 mallabiena@mallabiena.com	 Iturgintza  UNAI GARAY ITURGINTZA BEROGINTZA GASA INSTALATZAILE BAIMENDUA 659 673 790 unaigaray@yahoo.es





LAU-HORTZA

IRURI ALTZERREKA
MARTINEZ

Kipula jendea

Errezeta askotan aurkitzen dugu kipula. Gure etxeetan nahitaezko osagaia da, izan purea egiteko, barazkiekin nahasteko, hanburesari jartzeko, saltsaren baterako... Sukaldeko apalean oharkabean igarotzen ditu orduak, baina falta nabaria da eskura ez daukagunean. Azaleko kapa kendu, txiki-txiki egin eta malkoren bat isuri. Hori izaten da prozesua.

Bada efektu bera eragin dezakeen pertsonarik. Demagun aspaldiko lagun batekin geratu zarela. Demagun asteak daromatatzazuela elkar ikusi gabe. Besarkada batekin agurtu zarete. Ez dago hasierako galdera protokolariorik. Lanean zelan dabilen galdetu diozu. Zure ama zelan dagoen hark. Azaleko galderak dirudite, baina nolabaiteko intimitate gradua adierazten dute.

Herriko taberna batean jesarrita zaudete. Denborak aurrera egin ahala zerrenda mentalean zenituzten gaietan check egiten joan zarete. Txaketa kendu duzue. Jertsea gero. Warning: negar egiteko arriskua. Eroso zaudete. Badakizue kapak kendu arren ez duzuela hotzik pasatuko. Lasai kontatu diezazkiokezu bikotekidearekin izandako eztabaida, zure txikitako trauma familiarra edo hobby berri horren nondik norakoak.

Seguruenik, zuetako askori hurbileko norbaiten irudia etorriko zitzaizuen burura hitzok irakurtzean. Hala bada, zain itzazue.

AKUILUA

"Mallabitarrek asko zaindu naute beti"

IDOIA ALLENDE URIZAR DENDARIA

Tokiko enpresa-jarduera bultzatu eta herriguneko merkataritza dinamizatzeko udalak lokala egokitu ondoren, deneriko produktuak saltzeko denda berria zabaldu du asteon

Aitziber Basauri MALLABIA

Azken bost urtean, Idoia Allende (Ermua, 1968) osasun zentroaren alboan izan du denda, udalaren lokala hura ere. Aurerrantzean ere bera izango da herriko denda bakarraren arduraduna, leku handiagoa batean. Orain arte legez, bezeroen premiei egokitzea du helburu.

Leku aldaketagaz pozik zaude?

Bai. Leku asko irabazi dugu, hiru bider handiagoa da denda orain. Kokapenari dagokionez, adineko bezeroek esan didate aurreko dendak irisgarritasun hobia zuela. Ikusiko dugu, orain zabaldu dut eta. Uste dut orokorrean herritarrek ere pozik daudela.

Berrito hasieratik hastea legez dela diozu.

Bai, hala da. Martxa hartzen nabil, oraingoraino apur bat urduri! Hainbat gauza dugu lotzeko. Orain bost urte, herrian zegoen hutsune bat bete guran zabaldu zenuen denda, osasun zentroaren alboan.

Postari lana egiten nuen Mallabian, eta herrian askotariko produktuen dendarik ez zegoela ohartuta, lokala hartzera animatu nintzen. Hutsune hori bete behar zela uste nuen eta oso



Idoia Allende, Arteiz kalean zabaldutako dendan.

"TOKIKO KOMERTZIOA BABESTEAK DUEN GARRANTZIAZ JENDEAK KONTZIENTZIA HARTZEA GURA NUKE"

pozik nago egindako bideagaz. Mallabitarrek asko zaindu naute beti. Lotura estua dut herriagaz, ama bertakoa da. Komertzio txikiak funtzio garrantzitsua betetzen dute Mallabiaren moduko herrietan?

Zalantzarik barik. Adineko jende asko, adibidez, ezin da egunero Ermura joan erosketa egin. Oso gertu egon arren, joan-etorria egin behar da. Adineko herritar horiek dira nire bezero nagusiak. Gazteek beste era batera kontsumitzen dute. Dena dela, esango nuke herritarrek orokorrean eskertuta daudela zerbitzua ematen delako. Herriko eta inguruko baserritarren produktuak saltzen dituzu. Garrantzitsua da hori zuretzat?

Bai, jakina. Horregaitik gero eskaintza zabalagoa egiten aha-

legintzen naiz. Gainera, bezeroek eskertu egiten dute. Eibarko okela ekologikoa, Elorrioko jogurta, Mallabian egiten den gazta eta ezia, bertako zein inguruko baserritarren sasoiko barazkiak... saltzen ditut.

Herri txikitako dendak elkargune dira herritarrentzat.

Gainera, herri txikitik denok elkar ezagutzen dugu. Adineko jendearentzat egunero etxetik irteteko modua ere bada dendera etortzea. Batzuek esaten didate: "Zu egongo ez bazina ez nintzateke etxetik irtengo". Oso pozik nago bezeroekin. Jende nagusia zoragarria da, asko zaintzen naute.

Komertzioa ezinbestekoa da herriak bizirik mantentzeko. Sentitzen duzu ardura hori zure gain?

Egia esanda, asko borrokatu behar da komertzioari eusteko. Denda hau lehiaketa publiko bidez zabaldu da eta ni baino ez naiz aurkeztu. Nahiko lan lotua da eta asko ez dira animatzen. Gura nuke nik utzi eta gero norbaitek erreleboa hartzea.

Etapari honetan produktu gehiago eskainiko duzu?

Aurreko dendan eskaintzen nuen berdina eskainiko dut (barazkiak, fruta, litxarrerriak, edariak, higienerako produktuak, elikagaiak...). Baina kantitate handiagoan. Dena dela, kutxatxo bat ipini dut, iradokizunak jaso eta bezeroen premiei erantzuteko.

Beste ezer gehitu gura zenuke?

Tokiko komertzioa babesteak duen garrantziaz jendeak kontzientzia hartzea gura nuke. Lagundu ezean denda txikiak itxi egingo dituzte, eta halakoe-tan ohartzen gara duten garrantziaz. Komertzioak bizia ematen die herriei.

IURRETAKO hezkuntza eremua

Olaburu auzunea, IURRETA

- Gune egokia.
- Jantokia eta garraioa.
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak.
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketa guztiak Iurretan.

MATRIKULAZIOA
Otsailaren 2tik 13raATE IREKIAK
Urtarrilak 30
17:00etanMAIZTEGI
Herri Eskola
IURRETA2-12 urte
HH eta LH94 681 09 37
idazkaritza@maiztegieskola.comJuan
Orobio Goitia BHI
12-18 urte
DBH eta Batxilergoa94 428 80 00
015090aa@hezkuntza.net